




**IKASBIDE  
KULTUR  
ELKARTEA**  
Isabel II, Hirib. 15 behea  
Tel. - Fax 943 457 107  
20011 DONOSTIA  
www.ikasbide-kultur-elkartea.eus

# Euskal literatura goza!

## Xabier Lete, aberriaren poeta kantaria



Liburu hau gonbita bat da Xabier Leteren poesia eta pentsamendu poetikoa ezagutzeko. Xabierren poemak irakurtzeko edo berrirakurtzeko gonbita. Xabierren poesia eta pentsamendu poetikoa ezagutzen dituela uste duenak ezagutzen ez zuen informazio asko eta sorpresa ugari jasoko du, eta Xabierren poesia eta pentsamendu poetikoa gutxiago ezagutzen dituenak, aldiz, bertan bilatuko du euskal olerkigintzaren mugarri argienetako baten ibilbide publiko zein pribatuagora hurbiltzeko zurubia. Kasu batean zein bestean, olerkari bakan baten lan poetikoari buruzko goi mailako saiakera bat gozatuz. Horixe baita, batez ere, Alex Gurrutxagaren saiakera: joria eta bizia, gozatuz eta gehiagoren egarriz irakurtzen dena. Begiak eta adimena katibatzen dituenak. Liburu hau gonbita bat da autore gazte baten lehen lanaren maila heldua ezagutzeko, haren jakituria eta informazioaz harritzeko, haren hizkera efikaza gozatzeko. Ohiko prosa akademikotik urrun, eskuetan duzun liburuak garbi uzten du posible dela saiakera jaztea tonu grisetik haragoko bizipozezko koloreekin. Liburu hau opari bat ere bada, Xabier Lete eta haren poesia maite ditugunontzat bezala Lete eta haren poesia ezagutzen ez duten belaunaldi berrientzat.



**Alex Gurrutxaga** (Zarautz, 1988) Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle da gaur egun, eta Literaturan doktore. Hain zuzen ere, 'Xabier Leteren poetika: aldaeren azterketa eta bilakabidearen irakurketa bat' doktore-tesian oinarrituta dago liburua, baina izaera propioa du.

«Tesitik aterako dira zatiak aldizkari espezializatuetan argitaratzeko, hori da bide akademikoa, baina liburu hau egiten hasi nintzenean oso lurrean neuzkan hankak, eta oso argi neukan publiko zabalarengana heldu nahi nuela», bi lanen arteko aldea nabarmenduz.

**2021eko maiatzaren 3an  
19:00etatik 20:30era  
IKASBIDE KULTUR ELKARTEAN  
(Isabel II hirib.,15 b)**

**Edu Zabalak zuzendua**

**Erabili maskara nahitaez  
Mugatutako edukiera  
25 pertsona**

